



Haize errota, eta haien tartean artalde bat, Elgeako parke eolikoan (Araba). ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Aixeindarrek beste parke eoliko bat eraiki nahi du Araban, zortzi sorgailukoa

Arraia-Maeztuko, Iruraiz-Gaunako eta Donemiliagako lurak ukituko lituzke • Azazetakoaren alboan legoke, eta 40 MWko ahala izango luke

Imanol Magro Eizmendi

Arabian beste parke eoliko bat eraikitze bidea hasi du Aixeindarrek. Iberdrolak eta Eusko Jaurlaritzak Energiaren Euskal Erakundearen bitartez osaturiko elkarteak zortzi aerosorgailu berri jarri nahi ditu Laminoriako lurretan, Araban. Hiru udalerritara hedatuko litzateke parkea: Arraia-Maeztura, Iruraiz-Gaunara eta Donemiliagara. Bultzatzaile

leen arabera, 40 megawatt argindar sortzeko ahal gordina izango luke azpiegitura osoak.

Industria administrazioaren Arabako hurrengo ordezkariak atzo eman zuen baimen eskaeraren berri, EAeko aldizkari ofiziala. Tramite burokratikoaren aurreneko pausoa da, eta, jakinarazpen publikoarekin batera, hogeiguneko epe bat hasi zen, norbaitek ingurune horretan bertan antzeko beste egitasmo bat

eraikitze asmoa duen jakiteko. Ez da halakorik espero.

Aixeindarrek Araban eraiki asmo duen hirugarren parke eoliko da Laminoriakoa. Beste biak Labrazakoa eta Azazetako dira, eta haien tamaina eta ahal bera du horrek, hala haize erroten kopuruarengatik, nola argindarra ekoizteko uestezko ahalmenarengatik. Arkamun eta Iturrietan eraiki nahi zituenak, berriz, bertan behera gelditu ziren.

Aldundiak jatzko azaroen bultzada eman zion Azazetako parkeari, tramitazio administratiboa bere gain hartu ondoren. Esku hartzeko eskatu zion Iberdrolak abuztuaren egitasmoak ukitzen dituen sei udalen arteko akordioa ezinezkoa zela iritzita. Azkenean, aldundiak bere gain hartu zuen antolakuntza urbanistikoaren banaketaren diseinua, eta orain, besteak beste, ingurumen inpaktuaren ikerketak enkargatu ahal izango dira.

Iberdrola eta Jaurlaritzak dira Aixeindarren sustatzaileak, Energiaren Euskal Erakundearen bitartez

44 parke eoliko daude lanean Euskal Herrian, eta erakundek beste hainbeste eraikitze eskaerak jaso dituzte

Kontuan hartzeko moduko aurrekaria da, Laminoriako egitasmoak ukitzen dituen hiru herriak Azazetakoaren korapiloaren barnean baitzeuden. Bi parkeak elkarren alboan egongo dira; hor-taz, ikusteko dago aldundiak nola jokatu duen orain honetan: ea aurrekaria aplikatzen duen edo, orduan bezala, hiru hilabete epea ematen dien udalei. Eraikuntza epeei dagokienez, Azazetakoa 2025erako martxan egotea espero du Aixeindarrek.

Ahala bikoizteko eskaerak

Laminoriako parkearena Hego Euskal Herriko administrazioek mahai gainean duten parke eoliko bat eraikitze 44. eskaera da. Nafarroako Gobernuak 27 proiektu berri tramitatzeko ari da; Eusko Jaurlaritzak, beste 11 –Laminoriakoa barne–; eta beste hiru badira, gutxienez, Espainiako Trantsizio Ekologikorako Ministerioan –50 megawattetik gorako instalazioak han tramitatzeko dituzte–; Statkraft enpresak iragarritako biak gehitu behar zaizkie horiei. Gehiago ere espero dira, energia eolikoaren sektorea indarra hartzen ari baita 2021etik.

Gaur egun, 44 parke eoliko ari dira lanean Euskal Herrian. 1.400 haize errota inguru dira, lurteko guztiak, eta mendietan zein landa eremuetan daude. 1.520 megawattetik potentzia dute guztien artean. Beste 44 eskaerak egitasmoetan mamitu ahala eraikituko balira, 1.490 megawatt gehiago erantsiko lituzkete parke berriek, eta, beraz, Euskal Herriko indar eoliko orain halako biltzateke urte batzuen buruan.

%8,6

ALEMANIAKO INFILAZIO AURRERATUA ABENDUAN

Alemanian Estatistika Bulegoaren arabera, 2022ko abenduan %8,6 izan zen kontsumorako prezioen indizea (KPIa). Behin-behineko datuak dira, baina KPIaren jaitziera erakusten dute; izan ere, azaroran %10 zen, eta %10,4 urrian. Gauzak hala, 2022ko batez besteko inflazioa %7,9 izan da Europako Batasuneko ekonomia indartsuenean.

Gutxieneko soldata urtarril amaieran onartu nahi dute

MADRIL • Joaquin Perez Espainiako Lan eta Ekonomia Sozialeko Estatu idazkariak atzo adierazi zuen Espainiako Gobernuak urtarrila amaitu baino lehen onartu nahi duela gutxieneko soldata berria. 2023an %4,6 eta %8,2 artean handitzea proposatu zuen Lan Ministerioak. Sindikatuek, ordea, %10eko joga eskatu zuten, eta patronalak, berriz, %4koa.

Langileen gaixo agiria enpresek lortu beharko dute

MADRIL • Langileek gaixo agiria enpresari eman behar izateko beharra kendu du Espainiako Ministroen Kontseiluak, 2022ko azken bilera hartutako erabaki bati esker. Aurrerantzean, enpresak berak eskuratu beharko du gaixo agiria; Gizarte Segurantzatik lortuko dute agiria, telematikoki. Dekretua BOE Estatuko Aldizkari Ofizialean publikatzean sartuko da indarrean neurri hori.

Gizarte Segurantzak azaldu duen moduan, dekretu horrekin Espainiako Gobernuak «tramiteak azkartu» eta «betebehar burokratikoak murriztu» nahi ditu. Izan ere, Gobernuaren ustetan, egun gaixoaldia hartzeko prozesuak «alferrik» luzatzen dira, eta enpresentzat, langileentzat eta osasun langile publikoentzat onuragarria izango dela iritziko dute. Aurrerantzean, Gizarte Segurantzaren eta gaixo agiriak emateri dituzten entitateen komunikazioa telematikoa izango da, «digitalizazioak eta informazioaren teknologiek ematen duten eraginkortasuna aprobetxatuz».